

Faxismoaren gorakada Italian eta handik haratago



ANDREA BARTOLO
AZET ETXEBIZITZA
SINDIKATUKO KIDEA

Duela aste batzuk Italiako hauteskundeak izan ziren. Emaizetan, berriro, ez genuen sorpresan handirik jaso: eskuin-muturrak boterea eskuratu du, alderdi neofaxista baten gidaritzapean (Fratelli d'Italia). Datu politiko batzuk kontuan hartzea beharrezkoa zaigu, Italian gertatutakoak zuzenean interpelatzen gaituelako. Izan ere, faxismoaren gorakada ez da Italiako salbuespena, Europar Batasunaren (EB) etorkizun hurbila baizik.

Lehenengo datu politikoa abstentzioaren gorakada da: %37 (azken hauteskundeetatik %10 areagotu da). Horrek bizi auzi mahai-gaineratzen ditu: alde batetik, Europako beste hainbat hauteskundetan ikusi dugun moduan, demokrazia liberalaren zilegitasunaren krisia azaleratzen da. Beste aldetik, sozialdemokraziaren diskurtso "antifaxistaren" mugak ikusarazten ditu ("bozka gaitzazue, faxismoa iritsi ez dadin"), urteetan hautesleak mobilizatzeko balio izan zuena, baina gaur egun agortuta dagoena. European urteak daramatzagu ikusten gobernu sozialdemokratek -faxismoaren mamuari esker boterera heldu direnek- faxistek egingo lituzketen politika berberak egiten dituztela: neoliberalismo basatia, pobreen kontrako gerra, NATOren inperialismoa babestea, etorkinen aurkako politikak...

European urteak
daramatzagu
ikusten gobernu
sozialdemokratek
-faxismoaren mamuari
esker boterera heldu
direnek- faxistek egingo
lituzketen politika
berberak egiten dituztela

Hau da, EBk agindutako oligarkiaren interesen aldeko politikak.

Honekin, bigarren gakora heltzen gara: "europismoaren" eta faxismoaren arteko dikotomia faltsua. Faxismoaren gorakada saihesteko, "EBren aldeko apustua" egin beharko genukeela sinestarazten digute, "europar balioak" babestuz. Hala ere, dikotomia faltsu horren atzean, errealitate ankerra dugu: egungo egiturazko krisian, Europaren "balio" eta estrategiaren ordezkari onena faxismoa bera da; gero eta gertuago dugun autoritarismo garairako (austeritatea, inperialismoa, gerra...), Europak tresna eta forma autoritarioak behar baititu. Hots, faxismoa behar du.

Faxistek EBko estrategiarekin bat egiten dutela frogatzeko, eta Italia-ra bueltatuz, lehendakaria izango den Giorgia Meloni agindutako lehen neurriak aipa genitzake: Mario Draghi-kin sinatutako politika ekonomikoari buruzko akordioa, Ukrainari armak bidaltzen jarraitzeko promesa eta Atlantikoko aliantzarekiko konpromiso irmoa. Hortaz, aurretik aipatutako dikotomia faltsuaren ordeztu, europismoa eta faxismoaren arteko harreman dialektikoa mahai-gaineratu behar dugu. Izan ere, faxismo "berria" Europako burgesiaren produktua da (2008ko krisiaren osteko eztanda sozialari erantzuten diona), eta orain bere zeregina gauzatzea dagokio: datorren krisia kudeatzea, burgesiaren klase-interesak babestuz.

Horren aurrean erantzun antifaxista irmo eta eraginkorra planteatzea ezinbestekoa zaigu. Hala ere, argi izan beharko genuke faxismoaren gorakada ez dela hauteskundearen zirkularen bidez geldituko, are gutxiago propaganda "europista" hutsarekin. Faxismoaren birusaren aurkako txerto bakarra langileon auto-antolakuntza da, borroka materialetan eta inperialismoaren kontrako borrokan gauzatuko dena, Kapitalaren Europaren aurkako borroka ziklo berria berrosatuko duena. ●

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2022

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea: | Laguntzailea:



ELIZONDO

Urriak 22, larunbata, 17:00
Baztan pilotalekua



Agin
Laburu
Rezola

Alaia
Martín
Etxebarria

Iñaki
Apalategi
Astigarraga

Joanes
Illarregi
Marzoli

Onintza
Enbelta
Maguregi

Unai
Agirre
Goia

FINALAURREKOA